<table>
<tr><td colspan="2">

**OHIKO OSOKO BILKURA / PLENO ORDINARIO**

**2023KO MAIATZAREN 9A / 9 DE MAYO DE 2023**

</td></tr>
<tr><td colspan="2">

**BERTARATUAK / ASISTENTES**

</td></tr>
<tr><td>

**IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL**

D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna

</td><td>

**ALKATEA / ALCALDE**

D. Jon Iraola Iriondo jauna PSE-EE (PSOE).

**ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE**

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna PSE-EE (PSOE).<br>
Dña. Ana Telleria Echeverria andrea PSE-EE (PSOE).<br>
D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna PSE-EE (PSOE).<br>
D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna PSE-EE (PSOE).<br>
Dña. María Isabel Larrauri Arriaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>
D. Ander Curiel Ayuso PSE-EE (PSOE).

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES**

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea PSE-EE (PSOE).<br>
Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>
D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>
D. Alberto de la Hoz Gorriti (EIBARKO EAJ-PNV).<br>
Dña. Mª Mercedes Garate Larrañaga andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>
Dña. Maria Elena Ibañez anuncibay andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>
D. Jon Pérez Illana jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>
D. Gorka Errasti Bernedo jauna (EH BILDU).<br>
Dña. Miren Baranguan Yarza andrea (EH BILDU).<br>
D. José Ángel Gimare Escolar jauna (EH BILDU).<br>
Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (EH BILDU).<br>
Dña. Mª Isabel Fernández Pejenaute andrea (ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS / EZKER ANITZA – IU/ EQUO BERDEAK).

</td></tr>
</table>

**Akta hau osoko bilkuraren grabazioarekin osatzen da. URL honen bidez eskura daiteke grabazioa:**

**La presente Acta se completa con la grabación del Pleno a la que se puede acceder a través de la siguiente URL:**

http://eibar.videoacta.es?pleno=20230509&instante=3

**Eibarko hirian, udaletxearen Batzar Aretoan, 2023ko maiatzaren 9an, goizeko zortziak eta erdiak izanik, Udalbatza bildu zen ohiko bilkuran**, goian aipaturiko jaun-andreek osatua; Albizu Llubia eta Lamarain Cobo andreek justifikatu dute beren ezin etorria.

**En la Ciudad de Eibar, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, a las ocho horas treinta minutos del día 9 de mayo de 2023, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal**, formado por las señoras y señores anteriormente mencionados/as, habiendo justificado su ausencia las Sras. Albizu Llubia y Lamarain Cobo.

**Alkate** jaunak bilerari hasiera eman dio eta honako hau aztertu da:

El Sr. **Alcalde** declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

## GAI-ZERRENDA

## ORDEN DEL DÍA

**Atal bakarra:**
**Eibarko Udala Eibarko Tokiko Energia Komunitatea - TEK Eibar Elkarteari atxikitzea eta zenbait udal-eraikinetako estalkiak erabiltzen lagatzea.**

**Punto único:**
**Adhesión del Ayuntamiento de Eibar a la Asociación Eibarko Tokiko Energia Komunitatea - TEK Eibar y cesión del uso de cubiertas de varios edificios municipales.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 19 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (4), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

VOTOS A FAVOR: 19 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (4), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

ABSTENCIONES: (0).

Legez, gehiengo osoa eskuratu duenez, onartu egin da.

Alcanzada mayoría absoluta legal, queda aprobado.

Udal Osoko bilkurak, 2023ko urtarrilaren 30ean egindako ohiko bilkuran, *Eibarko Klima eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana 2022-2030* onartu zuen. Plan horren bidez Udal honek 2030. urterako hartutako konpromisoak bete nahi ditu (Eibarren berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak % 55 murriztea, klima-aldaketarekiko lurraldearen erresilientzia bermatzea; klima-aldaketa arintzea eta horretara egokitzea bultzatzeko ikuspegi bateratua hartzea), baita Euskal Autonomia Erkidegoko Trantsizio Energetikoaren eta Klima-aldaketaren etorkizuneko Legearen espirituari aurrea hartzea ere; energia-kontsumoa % 35ean murriztea eta Eibarko Udalak energia berriztagarria sortzeko duen gaitasuna % 32an handitzea, era horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen baldintzak betez.

Visto que el Pleno municipal, en sesión ordinaria celebrada el 30 de enero de 2023, aprobó el Plan de Acción para el Clima y la Energía de Eibar 2022-2030. A través de dicho Plan, este Ayuntamiento pretende cumplir, para el año 2030, con los compromisos adquiridos en el mismo (reducir las emisiones de gases de efecto invernadero en Eibar en un 55%, asegurar la resiliencia del territorio al cambio climático; y adoptar un enfoque común para el impulso de la mitigación y adaptación al cambio climático), así como anticiparse al espíritu de la futura Ley de Transición Energética y Cambio Climático de la Comunidad Autónoma Vasca, reducir su consumo energético en un 35%, y aumentar la capacidad del Ayuntamiento de Eibar para generar energía renovable en un 32%, cumpliendo así con los requisitos de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca.

Energia berriztagarri gehiago sortzeko Planean jasotako ekintzen artean, besteak beste, Planaren bigarren ildo estrategiko “Tokiko energia-sorkuntza

Entre las acciones contempladas en el Plan para aumentar la generación de energía renovable, se recoge, entre otras, la acción “2.2.3. Impulsar la

berriztagarria sustatzea” atalaren “2.2.3. Energia-komunitateak sor daitezen bultzatzea” ekintza jasotzen da.

creación de comunidades energéticas” de la segunda línea estratégica del plan “L2. Promover la generación energética local y renovable”.

Alde horretatik, Eibarko Udalak Eibarko Tokiko Energia Komunitatea - TEK Eibar elkartea sortzea bultzatu du, irabazi asmorik gabeko elkarte baten forma juridikoarekin. Elkarte hori gure hirian egoitza duen tokiko energia-komunitatea da, energia-sektorean pertsonen, saltoki txikien eta ETEen parte-hartzea sustatzeko asmoz, energia berriztagarria sortzeko eta kudeatzeko proiektuen garapenaren inguruan taldekatuta. Komunitate horren helburuen artean dago:

- Energiaren jasangarritasunari laguntzea, Eibarko udalerriko bizilagunek eta dendek energia berriztagarria ekoiztu eta kontsumitu dezaten sustatuz.
- Udalerriko bizilagunak energia berriztagarrien erabiltzaile eta autokontsumitzaile gisa ahalduntzea.
- Komunitateko kideei ingurumen-, ekonomia- edo gizarte-onurak ematea.
- Birgaitzeko, birsortzeko eta berritzeko jarduerei ekitea, lehendik dauden eraikinak energia-kontsumo ia nuluko

En este sentido, el Ayuntamiento de Eibar ha apoyado la constitución, bajo la forma jurídica de una asociación sin ánimo de lucro, de Eibarko Tokiko Energia Komunitatea - TEK Eibar, una comunidad energética local con sede en nuestra ciudad, con el propósito de fomentar la participación en el sector energético de personas, pequeños comercios y pymes, agrupándolos en torno al desarrollo de proyectos de generación y gestión de energía renovable, y entre cuyos fines figura:

- Contribuir a la sostenibilidad energética promoviendo la producción y el consumo de energía renovable por parte de los vecinos y comercios del municipio de Eibar.
- Empoderar a los vecinos del municipio como usuarios y autoconsumidores de energía renovable.
- Proporcionar beneficios medioambientales, económicos o sociales a sus miembros.
- Emprender actuaciones de rehabilitación, regeneración y renovación urbanas, con el objetivo de transformar los

eraikin izateko.

edificios existentes en edificios de consumo energético casi nulo.

- Herritarren kontzientzia sustatzea energia-jasangarritasunaren kulturan, eta administrazio publikoek, bereziki udal-administrazioek, hura garatzeko beharrezkoak diren politika publikoen garapenean parte har dezaten.

- Promover la conciencia ciudadana en la cultura de la sostenibilidad energética y la implicación de las administraciones públicas, en particular las de ámbito municipal, en el desarrollo de políticas públicas precisas para su desarrollo.

- Autokontsumo partekatuko erregimenean ustia daitezkeen instalazio fotovoltaikoen ezarpena sustatzea.

- Promover la implantación de instalaciones fotovoltaicas que puedan ser explotadas en régimen de autoconsumo compartido.

- Jarduera egokiak gauzatzea, elkarteko kideen etxebizitzetan eta lokaletan egiten den elektrizitate-kontsumoan %100 berriztagarria izateko.

- Ejecutar las actividades apropiadas con el objetivo de alcanzar el 100% de origen renovable en el consumo de electricidad en las viviendas y locales de los miembros de la asociación.

- Udalerrian energia-egoera ahulak saihesten laguntzea

- Contribuir a evitar situaciones de vulnerabilidad energética en el municipio.

- Hiri eta komunitate jasangarriak lortzearekin zerikusia duten Agenda 2030eko Garapen Jasangarrirako Helburuez (GJH) kontzientziatzea eta helburuok herritarren artean zabaltzea.

- Concienciar y difundir entre la población los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) de la Agenda 2030, relacionados con el logro de ciudades y comunidades sostenibles.

Eibarko Tokiko Energia Komunitatea - TEK Eibar Elkarteak, 2023ko apirilaren

La Asociación Eibarko Tokiko Energía Komunitatea - TEK Eibar, con fecha 21

21ean, Udal honetako erregistro orokorrean, tokiko energia-komunitate hori garatzeko proiektuaren memoria aurkeztu zuen, eta, memoria horrekin batera, baita hainbat udal-eraikinetako estalkiak erabiltzen lagatzeko eskaera eta Eibarko Udalari Elkartean bertan sartzeko gonbita ere.

de abril de 2023, presenta en el registro general de este Ayuntamiento memoria del proyecto para el desarrollo de dicha comunidad energética local, junto con una solicitud de cesión de cubiertas de varios edificios municipales y la invitación al Ayuntamiento de Eibar para integrarse en la propia Asociación.

Kontuan hartuz Eibarko Udalak Elkarte horretako kide izan nahi duela eta autokontsumo kolektiboaren bidez ustiatzen diren eguzki-plaka fotovoltaikoak instalatzeko beharrezkoa denez udal-titulartasuneko jabetza publikoko ondasun hauen estalkiak edo teilatuak erabiltzeko eskubidea ematea:

Considerando que el Ayuntamiento de Eibar desea formar parte de dicha Asociación, y resultando necesaria la aportación del derecho de uso de las cubiertas de los siguientes bienes de dominio público de titularidad municipal con el fin de instalar placas solares fotovoltaicas que sean explotadas bajo la figura del autoconsumo colectivo:

- Amaña herri-ikastetxea
- Arrateko Andre Maria herri-ikastetxea
- Portalea Kultur Etxea.

- Colegio Público Amaña.
- Colegio Público Virgen de Arrate.
- Casa de Cultura Portalea.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 6.1.j) artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, zeinak udalei energia berriztagarrietako komunitateetako bazkide izaera aitortzen dien, erakunde juridiko horiek partaidetza irekian eta borondatezkoan oinarritutakoak izanik, autonomoak eta erakunde juridiko horien jabetzako energia berriztagarrien proiektuetatik gertu dauden bazkideek edo kideek kontrolatuak, betiere, horien helburu nagusia ingurumen-onura, onura

Considerando lo dispuesto en el artículo 6.1.j) de la Ley 24/2013, de 26 de diciembre, del Sector Eléctrico, que reconoce a los municipios la cualidad de socios de comunidades de energías renovables, entidades jurídicas basadas en la participación abierta y voluntaria, autónomas y efectivamente controladas por socios o miembros que están situados en las proximidades de los proyectos de energías renovables que sean propiedad de dichas entidades jurídicas, y cuya finalidad primordial sea

ekonomikoak edo onura sozialak ematea denean, ez finantza-irabaziak.

proporcionar beneficios medioambientales, económicos o sociales a sus socios o miembros o a las zonas locales donde operan, en lugar de ganancias financieras.

Gainera, testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak, eta lege hori garatzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Iraunkortasunari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuak, administrazioek, oro har, eta udalerriek dauzkaten egitekoak eta betebeharrak ezartzen dituzte, energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko eta energia berriztagarriak ezartzeko neurriak bultzatzeko. Hala, *"energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea, erregai fosilekiko mendekotasuna murrizteko"* helburuaren barruan, [Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 5.b) artikulua]. arau beraren 17.3 artikuluak honelaxe dio:

En este contexto, además, la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca, y su desarrollo mediante Decreto 254/2020, de 10 de noviembre, sobre Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca, articulan los deberes y obligaciones básicos de las administraciones, en general, y de los municipios, en particular, orientados al impulso de medidas de ahorro y eficiencia energética y de implantación de energías renovables. Así, enmarcado en el objetivo de *"promoción e implantación de las energías renovables, con el fin de reducir la dependencia de los combustibles fósiles"* [art. 5.b) de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca], el art. 17.3 de la misma norma prevé:

*"Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzak 2030erako lortu beharra dauka bere eraikin guztietan energia berriztagarriez baliatzeko instalazioak edukitzea, administrazio horren kontsumoaren % 32 zuzkitzeko adinakoak, ustiapen termikoko sistemak nahiz elektrizitatea sortzekoak barne direla."*

*"Cada Administración pública vasca deberá disponer para el año 2030, directamente o por su participación en entidades dedicadas a la producción de energía, de instalaciones próximas de aprovechamiento de energías renovables suficientes para producir energía equivalente al 32 % del consumo anual de la citada Administración,*

*incluyendo sistemas tanto de aprovechamiento térmico como de generación eléctrica.”*

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 9.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, udal-autonomiaren barruan sartzen dira, betiere, interes publikoak antolatzea Udalaren berezko esparruan, bere gobernu-organoak eta administrazioa antolatzea eta kudeatzea, bere lurraldea antolatzea, tokiko zerbitzuak arautzea eta ematea, ekimen ekonomikoa, bere zerbitzupeko langileen inguruko politika eta kudeaketa, ondarea eta diru-bilketa, eta orobat bere ogasunen baliabideak administratzea eta erabiltzea.

Considerando que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 9.5 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, la autonomía municipal comprende, en todo caso, la ordenación de los intereses públicos en el ámbito propio del municipio, la organización y gestión de sus propios órganos de gobierno y administración, la organización de su propio territorio, la regulación y prestación de los servicios locales, la iniciativa económica, la política y gestión del personal a su servicio, el patrimonio y recaudación, y la administración y destino de los recursos de sus haciendas.

Kontuan hartuz Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.28) artikuluan xedatutakoa, hain zuzen ere, ondarea kudeatzeko eta haren erabilera eta xedea arautzeko udal-eskumenei eta haren kontserbazioari eta mantentzeari buruzkoa, foru-araudiaren arabera, hala badagokio.

Considerando lo dispuesto en el artículo 17.1.28) de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, relativo a las competencias municipales sobre gestión del patrimonio y regulación de su uso y destino y su conservación y mantenimiento, de acuerdo, en su caso, con la normativa foral.

Kontuan hartuz, Herri Administrazioen Ondareari buruzko urriaren 3ko 33/2003 Legearen 93.1 eta 137.4.c) artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, bidezkoa dela herri-erabilerarako emakida bat zuzenean

Considerando que, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 93.1 y 137.4.c) de la Ley 33/2003, de 3 de octubre, de Patrimonio de las Administraciones Públicas, procede la adjudicación directa de una concesión

esleitzea, emakida hori beharrezkoa denean zerbitzu publikoko funtzio bat betetzeko edo interes orokorreko helburu bat betetzeko.

Kontuan hartuz Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 1.2 artikuluan xedatutakoa, zeinak irabazi asmorik gabeko elkarteetara atxikitzeko, zuzendaritza-organoaren berariazko erabakia behar dela ezartzen duen, eta, Eibarko Udalaren kasuan, udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz, organo hori Osoko bilkura da [Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.b) eta 47.2.g) artikuluak)].

Idazkaritzaren 2023ko otsailaren 14ko txostena ikusita,

Ingurumeneko teknikari andrearen 2023ko apirilaren 25eko txostena ikusita,

Kontuan hartuta 2023ko maiatzaren 2ko Erakunde, Lurralde eta Lege-gaietarako Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Osoko Bilkurak, aho batez, ondokoa erabaki du:

**AKORDIOA**

**LEHENENGOA.-** Eibarko Udala Eibarko Tokiko Energia Komunitatea – TEK Eibar Elkartean bazkide arrunt eta sustatzaile

demanial cuando la misma resulte necesaria para dar cumplimiento a una función de servicio público o la realización de un fin de interés general.

Considerando lo dispuesto en el artículo 1.2 de la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación, según el cual, la adhesión a asociaciones sin ánimo de lucro requiere el acuerdo expreso de su órgano rector, que en el caso del Ayuntamiento de Eibar es el Pleno, por mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación [arts. 22.2.b) y 47.2.g) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Visto el informe de Secretaría, de 14 de febrero de 2023.

Visto el informe de la Sra. Técnica de Medio Ambiente, de 28 de abril de 2023.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos e Institucionales, de 2 de mayo de 2023.

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, adopta el siguiente:

**ACUERDO**

**PRIMERO.-** Aprobar la integración del Ayuntamiento de Eibar en la Asociación Eibarko Tokiko Energia Komunitatea –

gisa sartzeko onespena ematea, dagozkion kuotak bere gain hartuz eta argindarrean horren baliokidea eskuratuz, kuotek horretarako eskubidea ematen dute-eta.

Elkartean sartzeko akordioaren 2. eta 7. puntuetan jasotako kuotak modu subsidiarioan onartzeko betebeharra Eibarko Udalaren aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa izatearen baldintzapean geratzen da, bazkide-gabeziak estaltzen ez dituen kuotak bere gain hartzeko, urteko 19728,00 euroko gehienezko mugaraino.

TEK Eibar como socio ordinario y promotor, con asunción de las cuotas que correspondan, con la obtención de su equivalente en energía eléctrica, a la que las cuotas dan derecho.

La obligación de asunción subsidiaria de cuotas recogida en los puntos 2º y 7º del acuerdo de integración queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el presupuesto del Ayuntamiento de Eibar con el fin de asumir las cuotas no cubiertas por la eventual carencia de socios, hasta el límite máximo de 19728,00 euros anuales.

**BIGARRENA.-** Eibarko Tokiko Energia Komunitatea – TEK Eibar-ek aurkeztu dituen Estatutuak onartzea. Elkartearen osaera eta funtzionamendua arautzen dute eta erabaki honi erantsi zaizkio.

**SEGUNDO.-** Aprobar los Estatutos presentados por la Asociación Eibarko Tokiko Energia Komunitatea – TEK Eibar que rigen la composición y el funcionamiento de la misma y que se incluyen como anexo al presente acuerdo.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen lehenengo puntuan onartutakoarekin bat, eta aurreko baldintza biak betetzen direla egiaztatu ondoren, alkate-udalburuari ondoko integrazio-testua izenpetzeko baimena ematea:

**TERCERO.-** De conformidad con lo aprobado en el punto primero del presente acuerdo, y previamente verificado el cumplimiento de las dos condiciones anteriores, autorizar al Sr. Alcalde-Presidente a la suscripción del siguiente texto de integración:

***Aurrena.- Helburua***

***Primero.- Objeto***

*Erabakiaren helburua da Eibarko Udala bazkide arrunt eta sustatzaile gisa Eibarko Tokiko Energia Komunitatea – TEK Eibar Elkartean (aurrerantzean, TEK Elkartea) integratzeko baldintzak arautzea, eta Udalaren hainbat kokaleku lagatzea; hori guztia Eibarren Tokiko Energia Komunitate baten garapena bultzatzeko, energia ekoizteko eta autokontsumo partekatuko erregimenean aprobetxatzeko.*

*El acuerdo tiene como objeto regular las condiciones de la integración del Ayuntamiento de Eibar, como socio ordinario y promotor, en la Asociación Eibarko Tokiko Energia Komunitatea – TEK Eibar, (en adelante, Asociación TEK), y la cesión de varios emplazamientos municipales, todo ello con el fin de impulsar el desarrollo de una Comunidad Energética Local en Eibar para la producción de energía y su aprovechamiento en régimen de autoconsumo compartido.*

***Bigarrena.- Eibarko Udalak hartzen dituen konpromisoak***

*1.- Eibarren sortu den tokiko energia-komunitatearen garapena <u>bultzatzea, laguntzea eta sostengatzea</u> bere hasieretan, herritarren, saltokien eta tokiko enpresen ahalik eta parte-hartze handiena lortzeko berme gisa, Elkartearen barrutik bertatik parte hartuz, eta proiektuaren onurei buruzko informazio- eta kontzientziazio-ekintzak eginez.*

*2.- <u>TEK Elkartean bazkide oso eta bazkide sustatzaile gisa sartzea.</u>*

*Bazkide oso legez, gainerako bazkideen eskubide eta betebeharrak eskuratuz, kuota bati dagozkionak.*

*Bazkide sustatzaile gisa, eta, modu subsidiarioan —elkarteko bazkide osoen artean banatutako kontsumo-*

***Segundo.- Compromisos del Ayuntamiento de Eibar***

*1.- <u>Impulsar, acompañar y apoyar</u> el desarrollo de la Comunidad energética local creada en Eibar en sus inicios, como garantía para conseguir la máxima participación de la ciudadanía, comercios y empresas locales, participando desde dentro de la propia Asociación, y llevando a cabo acciones de información y concienciación sobre los beneficios del Proyecto.*

*2.- <u>Integrarse en la Asociación TEK como socio de número y socio promotor.</u>*

*Como socio de número, adquiriendo los derechos y deberes propios del resto de socios y correspondientes a una cuota.*

*Como socio promotor, asumiendo, de forma subsidiaria en el caso de que los coeficientes de consumo distribuidos*

*koefizienteak instalazioaren ekoizpen-ahalmenaren % 100era iristen ez badira—, balizko bazkide-gabeziak estaltzen ez dituen kuotak bere gain hartuz, urteko 19728,00 euroko gehienezko mugaraino, hau da, 328 partaidetzaren baliokidea; betiere Eibarko Udalaren aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean.*

*entre los socios de número de la Asociación no alcancen el 100% de la capacidad de producción de la instalación, las cuotas no cubiertas por la eventual carencia de socios, hasta un límite máximo de 19728,00 euros anuales, el equivalente a 328 participaciones, siempre condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el presupuesto del Ayuntamiento de Eibar.*

*Bazkide arrunten kuoten balizko defizitagatik ordaindu beharreko zenbatekoa urte naturalaren hasieran ordainduko da, Udalari egozten ahal zaion gehieneko zenbatekoaren % 50. Ekitaldi bakoitzaren amaieran likidazioa egingo da, eta likidazio horretan komunitateari ordaintzeko dagoen zenbatekoa edo Udalak ordaindutako zenbatekoa itzuliko da, komunitateko bazkideen edo parte-hartzaileen kopuruaren arabera.*

*La cantidad a abonar por el eventual déficit de cuotas de los socios ordinarios se hará a principios de año natural por el 50% de la cantidad máxima imputable al Ayuntamiento. A final de cada ejercicio se llevará a cabo la liquidación en la que se ajustará la cantidad pendiente de abono a la comunidad o devolución del importe abonado por el Ayuntamiento en base al número de socios o participantes de la comunidad.*

*3.- Doan lagatzea TEK Elkarteari ondoren aipatuko diren udal-titulartasuneko estalkiak erabiltzen, estalkiotan azpiegitura fotovoltaikoaren instalazioa jar dezan:*

*- Portalea Kultura Etxea*

*- Arrateko Andre Maria herri-ikastetxea*

*- Amañako herri-ikastetxea*

*3.- Ceder a título gratuito a la Asociación TEK el uso de las cubiertas de los siguientes edificios de titularidad municipal, con el objetivo de que ejecute en ellas la instalación de la infraestructura fotovoltaica:*

*- Casa Cultura de Portalea*

*- Colegio Virgen de Arrate*

*- Escuelas de Amaña*

***Hirugarrena.- Eibarko Tokiko Energia Komunitatea Elkartearen konpromisoak***

*1.- <u>Elkartea eratzeko ezarritako helburuak betetzea</u>, bere jarduera bere kabuz eta bere izaera juridikoari aplika dakiokeen ordenamendu juridikoaren arabera eginez, bere jarduera arautzen duen ordenari jarraiki.*

*2.- Erabiltzen lagatzeko utzi diren udal-eraikinen estalkietan behar den <u>instalazio fotovoltaikoa egitea</u>, instalazio horrek eta lagatako azaleran egiten duen jarduerak sortzen dituzten gastu guztiak bere gain hartuz, azpiegitura edo jarduera zergapetzen duten zergak, tasak eta era guztietako tributuak barne.*

*Instalazioa egin aurretik, TEK Elkarteak instalazio-proiektua aurkeztu beharko du, baita Udalak eskatzen dizkion azterketa eta proba guztiak ere. Udalak oniritzia eman beharko die. Instalazioa burutu ondoren, instalazio hori egiaztatu beharko da eta Industria Sailean erregistratu izanaren egiaztagiria aurkeztu, indarrean dagoen araudiari jarraikiz.*

*Era berean, Udalari jakinarazi beharko dio zein enpresarekin kontratatuko duen instalazioa egitea, bai eta instalazioaren mantentze- eta aseguramendu-lanak ere. Udalak horien aurka egin ahal*

***Tercero.- Compromisos de la Asociación Eibarko Tokiko Energía Komunitatea***

*1.- <u>Dar cumplimiento a sus fines constitutivos</u>, realizando su actividad constitutiva por sí misma y de conformidad con el ordenamiento jurídico aplicable a su naturaleza jurídica y en el orden regulatorio de su actividad.*

*2.- <u>Ejecutar la instalación fotovoltaica</u> precisa en las cubiertas de los edificios municipales cuyo uso le sea cedido, asumiendo la totalidad de los gastos que dicha instalación y el desarrollo de su actividad en la superficie cedida generen, incluidos los impuestos, tasas y toda clase de tributos que graven la infraestructura o la actividad.*

*Con carácter previo a la ejecución de la instalación, la Asociación TEK deberá presentar el proyecto de instalación, así como cuantos estudios y pruebas sean requeridos por el Ayuntamiento, que deberán contar con el visto bueno de este. Finalizada la ejecución de la instalación, se deberá certificar dicha instalación y presentar justificante de su registro en Industria acorde a la normativa vigente.*

*Asimismo, deberá comunicar al Ayuntamiento las empresas con las que vaya a contratar tanto la ejecución de la instalación, como el mantenimiento y aseguramiento de la misma, pudiendo el*

izango du, baldin eta justifikatzen badu ez dituela betetzen instalazioa egiteko eta mantentzeko gutxieneko baldintzak, lagatako azaleren segurtasuna, fidagarritasuna eta babesa bermatzekoak. Udalak ez badu espresuki kontra egiten, jakinarazpenetik hilabete igaro ondoren ulertuko da ez dagoela jakinarazitako kontratazioaren aurka.

Ayuntamiento oponerse a las mismas si justificara que no reúnen los requisitos mínimos para una ejecución y mantenimiento de la instalación con garantías de seguridad, fiabilidad y protección de las superficies objeto de la cesión. En caso de no oposición expresa por parte del Ayuntamiento se entenderá, transcurrido un mes desde la comunicación, que no existe oposición a la contratación comunicada.

Udalak baimendu beharko du lagatako azaleran instalatutako azpiegituran, haren xedean edo eduki tekniko, juridiko edo bestelakoetan edozein aldaketa egitea, eta Elkarteak ezin izango du egin baimena jakinarazten zaion arte.

Cualquier modificación, sea de la infraestructura instalada en la superficie cedida, como del destino de la misma o de los contenidos técnicos, jurídicos o de otra naturaleza, deberá ser autorizada por el Ayuntamiento, no pudiendo la Asociación realizarla en tanto la autorización no le sea notificada.

### Laugarrena.- Lagatako espazioen erabilera eta kontserbazioa

a) Lagatako estalkiak TEK Elkarteak berak bakarrik erabili beharko ditu, eta ezingo dira, era berean, erabat, partzialki edo doan edo kostu bidez laga, horretarako eskumena duten profesionalek azpiegitura fotovoltaikoa kudeatzeari utzi gabe.

### Cuarto.- Uso y conservación de los espacios cedidos

a) Las cubiertas cedidas deberán ser usadas exclusivamente por la Asociación TEK, sin que puedan ser, a su vez, objeto de cesión total, parcial o gratuita u onerosa, sin perjuicio de la gestión de la infraestructura fotovoltaica por profesionales con competencia para ello.

Elkarteak lagatako azalera bere Estatutuetan aurreikusitako xedeetarako erabiliko du eta Estatutuetan

La Asociación destinará la superficie cedida a los fines previstos en sus Estatutos y conforme a lo estipulado en

*ezarritakoaren arabera. Elkarteak Udalaren aurretiazko baimena behar du bere forma juridikoan, estatutuetan edo funtzionamendu-arauetan sartu nahi duen edozein aldaketa egiteko, lagapenak irauten duen bitartean.*

*los mismos, requiriéndose autorización municipal previa, para cualquier modificación que pretenda la Asociación introducir en su forma jurídica, estatutos o normas de funcionamiento durante el tiempo que dure la cesión.*

*b) Elkarteak lagatako azaleraren izaerarekin bat datorren erabilera egokia egin beharko du. Konpromisoa hartzen du lagatako eremuan bere jarduera garatzeko, halako azpiegiturak instalatzeko eta mantentzeko ohikoak eta arruntak izaten diren eragozpenez edo zaratez haragokorik sor ez dadin. Horretarako, behar diren neurri zuzentzaileak hartuko ditu eta araudiak hala eskatzen duenean, baimendutako edo homologatutako instalatzaileen bidez jardungo du.*

*b) La Asociación deberá realizar un uso adecuado y acorde con la naturaleza de la superficie cedida. Se compromete a desarrollar su actividad en la superficie cedida de manera que no se causen molestias o ruidos más allá de los ordinarios y usuales en este tipo de infraestructuras para su instalación y mantenimiento, adoptando las medidas correctoras precisas y actuando cuando la normativa lo requiera a través de instaladores autorizados u homologados.*

*c) Hitzarmen hau sinatuta, TEK Elkarteak berariaz onartzen ditu lagatako azaleren ezaugarriak eta kontserbazio-egoera.*

*c) Mediante la firma de este acuerdo, la Asociación TEK asume expresamente las características y el estado de conservación de las superficies cuyo uso le son cedidas.*

*d) Elkarteak azalera horiek erabiltzeko, kontserbatzeko eta apaintzeko egoera ezin hobean mantendu behar ditu, eta bere kontura, bere ardurapean eta bere kargu egin behar ditu horretarako beharrezkoak diren konponketak, bai eta azpiegitura fotovoltaikoa instalatzeko eta*

*d) La Asociación se obliga a mantener dichas superficies en perfecto estado de uso, conservación y ornato realizando por su cuenta, a su cargo y bajo su responsabilidad, las reparaciones precisas a dicho*

*haren funtzionamendurako beharrezkoak direnak ere, eta, hala badagokio, kaltetutakoa berritu egin beharko du.*

*efecto, así como las necesarias para la instalación de la infraestructura fotovoltaica y de funcionamiento de la misma, y, en su caso, la reposición de lo dañado.*

*Udalak ahalmena du lagatako azaleraren kontserbazio-egoera edozein unetan ikuskatzeko, eta, hala badagokio, agindu diezaioke TEK Elkarteari lagatako azaleraren egoerari eusteko beharrezkoak diren jarduketak edo obrak egiteko.*

*El Ayuntamiento se reserva la facultad de inspección, en cualquier momento, del estado de conservación de la superficie cedida pudiendo, en su caso, ordenar a la Asociación TEK la ejecución de las actuaciones u obras precisas para mantener su estado.*

*Hala ere, Udalaren ardura izango da instalazioak eragin ez dituen kontserbazio- eta konponketa-lanak egitea, edozein kasutan egin beharko liratekeenak, nahiz eta instalazio fotovoltaikoa egin ez.*

*No obstante, el Ayuntamiento será responsable de realizar las obras de conservación y reparación no debidas a la instalación y que hubiera sido necesario llevar a cabo en cualquier caso, aunque la instalación fotovoltaica no se hubiera ejecutado.*

*Era berean, Elkartea behartua dago Udalari jakinaraztera, ahalik eta azkarren, ustez kaltegarria izan eta kontserbazio-egoera txarrean dagoen berritasun oro, lagatako azalerari edo eraikinari eragiten badio.*

*Del mismo modo, viene obligada la Asociación a poner en conocimiento del Ayuntamiento, con la máxima urgencia, toda novedad previsiblemente dañosa y en mal estado de conservación de que afecte a la superficie cedida o al edificio en el que se integra.*

*Elkarteak lagatako azaleran egiten duen edozein obra edo hobekuntza higiezinaren onurarako izango da hura bukatzean, konpentsazio ekonomikorik edo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe. Halaber, Udalak eska diezaioke Elkarteari azalera hasierako egoerara*

*Cualquier obra o mejora realizada por la Asociación en la superficie cedida durante su utilización quedará en beneficio del inmueble al finalizar la misma, sin derecho a compensación económica o indemnización alguna. No obstante, el Ayuntamiento podrá requerir*

*itzultzeko edo lehengoratzeko.*

*a la Asociación la restitución de la superficie a su estado inicial.*

*Horrela egin ezean, Udalak berak egin ditzake subsidiarioki lehengoratze-obrak, eta elkarteak ordaindu beharko du kostua.*

*En caso de no hacerlo, el Ayuntamiento podrá ejecutar subsidiariamente las obras de restitución, estando la asociación obligada a pagar el coste.*

*Lagapenaren eta egon daitezkeen luzapenen indarraldia amaituta, TEK Elkarteak Udalari itzuliko dizkio lagatako azaleretara sartzeko giltzak edo bestelako baliabideak.*

*Transcurrido el plazo de vigencia de la cesión y de las posibles prórrogas, la Asociación TEK devolverá al Ayuntamiento las llaves u otros medios existentes para el acceso a las superficies objeto de cesión.*

*Lagatako azalera kontserbazio-egoera hobeezinean itzuli beharko da, Erabaki hau hartzen den unean dagoen egoera berean, Udalak eta TEKek instalatutako azpiegitura han uzteko akordiorik hartu ezean. Kasu horretan, azpiegituraren titulartasuna Udalaren eskuetara pasatuko da, eta Udalak eskubide osoa izango du lagapenaren indarraldia amaitu eta berehala erabiltzeko.*

*La devolución de la superficie cedida deberá hacerse en perfecto estado de conservación, en la misma situación y estado en que se encuentra en el momento de adopción del presente Acuerdo, salvo acuerdo entre el Ayuntamiento y TEK de permanencia de la infraestructura instalada. En este caso, la titularidad de la infraestructura pasará a ser municipal con derecho del Ayuntamiento a su plena disposición inmediata a la finalización de la vigencia de la cesión.*

*e) Elkarteak ez du inolako mendekotasun-harremanik Eibarko Udalarekin. Eibarko Udalak ez du bere gain hartuko, ez zuzenean ez subsidiarioki, estalkietan edo eraikinean, egitez edo ez egitez, gerta daitezkeen kalte material, pertsonal edo moralen erantzukizunik.*

*e) La Asociación no tiene ninguna relación de dependencia con el Ayuntamiento de Eibar, el cual no se hace responsable, ni directa ni subsidiariamente, de los daños materiales, personales o morales que, por acción u omisión, puedan producirse en las cubiertas o en el edificio en el que*

se integra.

*f) Elkarteak Udalari eta hirugarrenei kalteak ordaindu beharko dizkie azpiegitura fotovoltaikoa jartzeagatik edo lagatako eremuan egiten den beste edozein jarduerarengatik sor ditzakeen kalte-galerengatik. Horretarako, hirugarrenek edo udal-instalazioek jasan ditzaketen kalteen erantzukizun zibila estaltzen duten aseguru-polizak sinatu beharko ditu, eta haien primen kopia eta ordainagiria aurkeztu. Udalak TEK salbuets dezake atal honek ezartzen duen aseguratze-betebeharretik, baldin eta lagatako eraikinak arrisku horiek estaltzen dituen asegurua badu.*

*f) La Asociación deberá indemnizar al Ayuntamiento y a terceros por los daños y perjuicios que cause como consecuencia de la instalación de la infraestructura fotovoltaica o cualquier actividad que desarrolle en la superficie cedida. A tal efecto, deberá suscribir las pólizas de seguro que cubran la responsabilidad civil por posibles daños a terceros o instalaciones municipales, con entrega de copia y justificación documental del pago de sus primas. El Ayuntamiento puede eximir a la TEK de la obligación de aseguramiento que establece este apartado en el caso de que el edificio cuya superficie ha sido objeto de cesión cuente con un seguro que cubra estos riesgos.*

*Halaber, Udalak ez du bere gain hartuko ustekabeko edo ezinbesteko arrazoiengatik Elkarteari eragin dakizkiokeen kalteen erantzukizunik.*

*Asimismo, el Ayuntamiento no responde de los daños que puedan ocasionarse a la Asociación por causa fortuita o fuerza mayor.*

*g) Era berean, Elkartea beharturik dago azpiegitura instalatzeko eta bere jarduerak lagatako azaleran egiteko behar diren lizentzia, baimen eta baimenak eskuratzera. Bere jardueraren garapenean eska dakizkiokeen zerga, lan edo beste edozein motatako eginbeharrak beti eguneratuak izan*

*g) Asimismo, la Asociación queda obligada a obtener las licencias, permisos y autorizaciones necesarias para la instalación de la infraestructura y el desarrollo de sus actividades en relación con la superficie cedida, debiendo estar al corriente en todo momento de sus*

*beharko ditu.*

*obligaciones de carácter fiscal, laboral o de cualquier otra naturaleza que le fueran exigibles en el desarrollo de su actividad.*

*h) Lagapenean zehar, bai azpiegiturari dagokionez, bai jarduerari dagokionez, Elkarteak sortutako erreklamazio, zor, gastu edo karga guztiak bere kontu eta erantzukizunekoak izango dira, eta ez diote inolako ondorenik ekarriko Udalari.*

*h) Cualquier reclamación, deuda, gasto o carga generada por la Asociación durante la cesión, tanto respecto a la infraestructura como por su actividad, será de su exclusiva cuenta y responsabilidad, sin posibilidad de repercusión alguna frente al Ayuntamiento.*

***Bosgarrena.- Instalatutako azpiegiturak sortutako argindarraren erabilera***

*Estalkiak okupatzen dituen instalazioak sortzen duen argindarrak edo energiak bere helburu nagusiari erantzun diezaion —hau da, TEK Elkarteko kideei eta Elkartea kokatzen den udalerriari onura ekonomiko, sozial eta ingurumenekoak ematea, hirugarrenentzako salmenta saihestuz—, energia hori Elkarteko kideen artean banatuko dela ezartzen da, haien artean adostutako banaketa-koefizienteen arabera.*

*Elkarteko bazkide osoen artean banatutako kontsumo-koefizienteak ez badira iristen instalazioaren ekoizpen-ahalmenaren % 100era, Udalak, bazkide*

***Quinto.- Destino de la energía generada por la infraestructura instalada***

*Con el objetivo de que la energía que produce la instalación que ocupa las cubiertas responda a su finalidad primordial de reportar beneficios económicos, sociales y medioambientales a los miembros de la Asociación TEK y al municipio donde ésta se ubica, evitando la comercialización a terceros de la misma, se establece que dicha energía se distribuirá entre los miembros de la Asociación en función de los coeficientes de distribución acordados entre ellos.*

*En el caso de que los coeficientes de consumo distribuidos entre los socios de número de la Asociación no alcancen el 100% de la capacidad de producción de*

*sustatzaile den aldetik, instalazioari atxikitako udal-kontsumo bat edo gehiago identifikatuko ditu, eta horiei partaidetza-koefiziente bat esleituko zaie, instalazioaren ekoizpen-ahalmenaren % 100 bete arte.*

*la instalación, el Ayuntamiento en su calidad de socio promotor identificará uno o varios consumos municipales adscritos a la correspondiente instalación y a los cuales se les asignará un coeficiente de participación hasta cubrir el 100% de la capacidad de producción de la instalación.*

***Seigarrena.- Jarraipena, zaintza eta kontrola akordioaren betearazpenean***

*Akordio honen garapenaren jarraipena egiteko, Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Saila izango da aldeen konpromisoak eta betebeharrak eta proiektuaren garapena behar bezala betetzen direla zainduko duena.*

*Horrez gain, Batzorde misto bat sortuko da, Udalaren ordezkari batek eta Elkartearen beste ordezkari batek osatua. Betekizun hauek izango ditu:*

- *Akordio honen babesean egindako jardueren jarraipena eta ebaluazioa egitea. Horretarako, Elkarteak uneoro eman beharko du Udalak eskatzen dion informazioa eta dokumentazioa.*

- *Akordio honen inguruan sor daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak konpontzea, eta*

***Sexto.- Seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del acuerdo***

*Para el seguimiento del desarrollo de este acuerdo, será el Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente del Ayuntamiento quien velará por el correcto cumplimiento de los compromisos y deberes de las partes y el desarrollo del Proyecto.*

*Además, se creará una comisión mixta, integrada por una persona representante del Ayuntamiento, y otra de la Asociación, y que tendrá las siguientes funciones:*

- *Realizar el seguimiento y evaluación de las actividades realizadas al amparo del presente acuerdo, para lo cual, la Asociación deberá proporcionar en todo momento la información y documentación que le sea requerida por el Ayuntamiento.*

- *Resolver los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse respecto*

*atzemandako irregulartasunak zuzentzeko neurriak proposatzea.*

- *Eta, oro har, akordio honetatik ondorioztatzen diren guztiak eta/edo aldeek egoki deritzotenak.*

*Urtean behin, elkarteak Udalari memoria bat aurkeztuko dio, bere funtsezko jarduera eta eratze-helburuen betetze-maila azaltzeko; Elkarteko bazkide-kopurua frogatzen duen dokumentazio guztia erantsiko dio.*

*de este acuerdo, proponiendo medidas en orden a la corrección de posibles irregularidades detectadas.*

- *Y, en general, todas aquéllas que se desprenden del presente acuerdo y/o que las partes estimen convenientes.*

*Anualmente, la Asociación presentará al Ayuntamiento una memoria descriptiva de su actividad fundamental y del grado de cumplimiento de sus objetivos constitutivos, adjuntando toda aquella documentación justificativa del número de socios de la Asociación.*

***Zazpigarrena.- Iraupena***

*Udalaren estalkiak gehienez ere 15 urterako lagako dira, eta lagapena 25 urtera luza daiteke.*

*Eibarko Udala TEK Elkartean bazkide sustatzaile gisa integratzeak, bazkideen balizko defizitak estaltzen ez dituen kuotak bere gain hartuz, 8 urteko iraupena izango du gehienez.*

*Akordio hau sinatu eta 4 urtera berrikusiko da kuotak modu subsidiarioan Udalak bere gain hartzeko betebehar hori. Hala, elkarteak gutxienez bazkideen % 90 badu, Eibarko Udalak ez du betebehar hori izango.*

*Hala ere, hurrengo 4 urteetan, eta*

***Séptimo.- Duración***

*La cesión de las cubiertas municipales se hace por un plazo máximo de 15 años, prorrogable a 25.*

*La integración del Ayuntamiento de Eibar en la Asociación TEK como socio promotor, asumiendo las cuotas no cubiertas por el eventual déficit de socios, tendrá una duración máxima de 8 años.*

*Dicha obligación de asunción subsidiaria de cuotas será revisada a los 4 años de la firma del presente acuerdo, de modo que, si la Asociación contase con, al menos, un 90% de asociados, desaparecerá dicha obligación para el Ayuntamiento de Eibar.*

*No obstante, si durante los 4 años*

*elkartearen jardueraren urteko jarraipenaren ondorioz, bazkideen kopurua % 90etik behera murrizten bada, Udalak kideen ehunekoaren arabera bermatuko du bere ekarpena.*

*Era berean, akordioa aldez aurretik iraungi daiteke, inguruabar hauek direla medio:*

- *Alde biak ados jartzea.*
- *Elkarteak ez betetzea eratzeko unean zituen helburuak.*
- *Akordio honetan ezarritako edozein debeku edo betebehar ez betetzea.*
- *Elkartea desegitea edo jarduteko duen gaitasuna galtzea, bai eta elkartearen eraketa-jardueraren garapena egiterik edo egiteko eskubiderik ez izatea ere; hori guztia elkartea iraungi aurretik sortutako betebeharrak betetzeari utzi gabe.*

*Edozein arrazoirengatik lagapena amaitzen denean, TEK Elkarteak ez du eskubiderik izango Udaletik inolako konpentsazio edo kalte-ordainik jasotzeko, salbu eta Bosgarren atalean aurreikusitakoaren arabera*

*siguientes y, como consecuencia del seguimiento anual de la actividad de la Asociación, se viera reducido el número de socios por debajo del 90%, la garantía de aportación por parte del Ayuntamiento será proporcional al porcentaje de asociados.*

*Asimismo, el acuerdo podrá extinguirse de manera anticipada por las siguientes circunstancias:*

- *Mutuo acuerdo de las partes.*
- *El no cumplimiento, por parte de la Asociación, de sus fines constitutivos.*
- *El incumplimiento de cualquiera de las prohibiciones u obligaciones establecidas en este acuerdo.*
- *La disolución o la pérdida de su capacidad de obrar de la Asociación, así como la imposibilidad de hecho o de derecho de desarrollar su actividad constitutiva, todo ello sin perjuicio del cumplimiento de las obligaciones que hubiera generado con anterioridad a la extinción.*

*A la finalización de la cesión por cualquier causa, la Asociación TEK no tendrá derecho a compensación o indemnización alguna proveniente del Ayuntamiento, salvo lo previsto en relación con el cumplimiento de las*

*kontsumitzaile izatea aukeratu eta bere gain hartutako betebeharrak bete beharra bada.*

*obligaciones asumidas por el Ayuntamiento si hubiere optado por la condición de consumidor conforme a lo previsto en el apartado Quinto.*

**LAUGARRENA.-** Aurrekoarekin bat etorriz, Eibarko Tokiko Energia Komunitatea - TEK Eibar Elkarteari udal-titulartasuneko ondoko eraikin hauen estalkiak erabiltzeko lagapena onartzea, 15 urterako, beste 10 urtez luza daitekeena, estalkiotan plaka fotovoltaikoak jartzeko:

- Portalea Kultura Etxea
- Arrateko Andre Maria herri-ikastetxea
- Amañako herri-ikastetxea

**CUARTO.-** Aprobar, de conformidad con lo anterior, la cesión a la Asociación Eibarko Tokiko Energia Komunitatea - TEK Eibar del uso de las cubiertas de los siguientes edificios de titularidad municipal por el plazo de 15 años, prorrogable por otros 10, con el objetivo de que se ejecute en ellas la instalación de placas fotovoltaicas:

- Casa Cultura de Portalea
- Colegio Virgen de Arrate
- Escuelas de Amaña

**BOSGARRENA.-** Alkate jaunari eskuordetzea eta ahalmena ematea erabaki horiek gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak formalizatzeko eta sinatzeko, bai eta horiek betearazteko behar diren gai guztiak ebazteko eta osatzeko ere**.**

**QUINTO.-** Delegar y facultar al Sr. Alcalde para formalizar y firmar cuantos documentos sean necesarios para la materialización de los anteriores acuerdos; así como para resolver y complementarlos en todas las cuestiones que su ejecución requiera.

**SEIGARRENA.-** Erabaki hau hartu dela jakinaraztea Eibarko Tokiko Energia Komunitatea-TEK Eibar Elkarteari, egoitza Eibarren duenari.

**SEXTO.-** Notificar la adopción del presente acuerdo a la Asociación Eibarko Tokiko Energia Komunitatea - TEK Eibar, con sede en Eibar.

Eta, beste aztergairik ez dagoenez, eta goizeko bederatziak eta bostak izanik, Alkate-Udalburu jaunak amaitutzat eman du Osoko Bilkura; eta nik, Idazkari Nagusi naizen honek, honen guztiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las nueve horas cinco minutos, el Sr. Alcalde-Presidente levanta la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

O.I. / Vº Bº

ALKATE UDALBURUA/

EL ALCALDE-PRESIDENTE

Jon Iraola Iriondo

IDAZKARIA / EL SECRETARIO

Juan Agustín Villafranca Bellido